ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko urriaren 30a, asteazkena • 124 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## LAUDIOKO UDALA

**2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko diren udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketa. Hasierako onarpena. (Espediente: 2024/282)**

Laudioko Udalbatzak, 2024ko urriaren 25 egunean egin zuen Osoko Bilkuran, onartu egin zituen behin behineko izaeraz 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatu beharko diren udal zergak eta tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalak eta udal prezio publikoak arautzen dituen ordenantzaren aldaketak.

Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, jakinarazten da jendaurrean jarri dela hasiera batean onartutako udal-zergak eta -tasak arautzen dituzten ordenantza fiskalen testua, eta hasieran onetsitako prezio publikoak arautzen dituen udal-ordenantzaren testua, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49-b) artikuluaren arabera (aipatutako 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 52. artikuluarekin lotuta), alegia, jendearen eskura erakusten jarrita daudela ikusgai, Udaletxeko honetako Udal Kudeaketa Arloko Ekonomikoko Azpiarloan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, 30 eguneko epearen barruan, herritar interesatuek goki irizten dituzten erreklamazioak aurkeztezko; azpimarratu behar da erabaki horren aurka erreklamaziorik ez bada aurkezten erakustaldiaren epearen barruan, erabakia behin betiko onartutzat hartuko dela.

Laudio, 2024ko urriaren 25a

*Alkate-udalburua*
*AINIZE GASTAKA MARTÍNEZ*


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432


Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.10.30 06:43:59 Z